

## ENPRESAREN BALIABIDEAK



Gure enpresak balorezko proposamena egin dezan, hori bera bezeroei helarazi diezaien, bezeroekiko harremanak maten ditzan eta, azkenik, diru-sarrerak sor ditzan ezinbestekoa da funtsezko baliabideak edukitzea.

Baliabide hauek lau multzo ezberdinetan sailkatzen dira eta gure enpresaren kasuan honako hauek izango dira:

- ★ **Baliabide fisikoak:** lanerako bulegoa eta bertako materialak, informazioa prozesatzeko ekipoa, telefonoa, paketeak egiteko materiala, eskariak garraiatzeko furgonetak eta gure produktuak saltzeko erabiliko ditugun denda fisikoak.
- ★ **Baliabide intelektualak eta giza-baliabideak:** enpresaren jabe izango garen bakoitzak gaitasun ezberdinak dituenez, bakoitzak baliabide desberdinen ekarpena egingo dio enpresari.
  - **AITANA:** bezeroekin harremanetan jartzeko gaitasuna eta pazientzia.
  - **UNAI:** informatikari buruz duen ezagutza eta webguneak diseinatzeko abilezia.
  - **NEREA:** produktu kosmetikoen inguruko ezagutza eta berriak garatzeko sormena.
  - **ANE:** salmentarako gaitasuna eta enpresa kudeatzeko abilezia.
- ★ **Finantza-baliabideak:** jabe guztien aurrezkiak eta behar izanez gero, bankuari eskatuko diogun mailegua.